

# Elikagaien bilketa eta banaketarako sistema inplementatzeko aukera aztertzeko hitzarmena sinatu dute Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak

2008/01/08

**Elikagaien Bankuarekin duten elkarlanari gehituko zaio azterketa.**

Egun, iraungipen-data baino lauwpabost egun lehenago botatzen diren ehunka tona elikagai iristen dira egunero zabortegietara hondakin bezala. Hipermerkatuentzat horiek ezin dira saldu.

Baina soberakin horiek premiazko taldeen beharrak ase ditzakete eta, horiei esker, dirua aurreztu eta ingurumenari kaltea murriztu daiteke bide batez. Horrela, ingurumen-abantailak eta sozialak bateratuko lirateke. Horretarako, garrantzitsua da apaletatik irteten direnetik haiek banatzen direnera arte, elikagaiak mantentzea ahalbidetuko zukeen banaketa-kate solidarioa edukitzea.

Garapen Jasangarriko Departamentua Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatearekin jarri da harremanetan banaketa-kate hori Gipuzkoan inplementatzeko ahalmena azter dezan.

Enpresa Zientzietako Fakultateak hainbat jarduera egin ditu "Last Minute Market" programaren inguruan, egun Bologna (Italia) zonan martxan dagoena eta saldu ez diren eta gehienetan bota egiten diren produktuak aprobetxatzen dituen.

Gainera, hiri-hondakinak murrizteko politiken artean, Garapen Jasangarriko Departamentuak 2007ko apirilean Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin sinatu zuen ahalik eta saltzerik ez dauden baina jan daitezkeen elikagaien emaeleak lortzeko.

(Iturria: Gipuzkoa Ingurumena)

